

6. GAIA (6.3)

6.3)ESTATU SOZIALAREN OINARRIAK. GIZARTEA ETA LAN POLITIKAK, BISMARCKTIK NEW DEAL-ERAINO

1) ESTATU SOZIALEN SORMENAREN BIDEAK, EUROPAN. GIZARTE ERRERFORMISMOA, ETA LAN LEGEDI BERRIA.

Estatua, liberalismoaren ikuspuntutik eta liberalismo klasikoaren arabera estatuaren betebeharrak barneko eta kanpoko ordena bermatzea, giza gatazkak indarraren bidez kontrolatzea eta maila basikoko lan eta zerbitzu publikoak aurrera eramatea ziren. Estatuak ez zuten kapitala eta lanaren arteko harremanak kudeatu behar lanaren mundua, kapitalaren menpe zegoelako. Ondorioz: **estatuak, elementu pasibo bat zen, bidegabekeria sozialen aurrean** horrela **“gai soziala”** bezalako kontzeptuak sortu ziren, eta langileen egoera kudeatzeko estatuaren esku hartzearen eztabaidak hasi zen. (**“gizarte erreformismoa”**)

Gai soziala: XIX. Mendeko Europan sortutako kontzeptua da. Zenbait politikarien, erlijiosoen, eta intelektualen kezka biltzen ditu, iraultza industrialak sortu dituen hainbat arazoaren aurrean. Hauen artean, langileen pobrezia eta haien bizi kalitate eskasa.

Giza erreformismoa: **XIX**: Mendean sortutako ideologia politiko eta sozial bat da. Gizartean eta legedian mailaz mailako aldaketak defendatzen ditu, gizartearen eremu garrantzitsuen bizi kalitatea hobetzeko estatuak bultzatu beharreko legedi berri baten bidez, lan legedia.

estatuaren interbentzio ezak lana eta kapitalaren arteko gatazkan, jarrera bat zekarren, kapitalaren/burgesiaren aldeko jarrera, ahulari babesik ez emanez, indartsuari bermatzen. xix. mendetik aurrera, babes eza honen ondorioz, aldarrikapen sozialak eta politikoak gero eta indar gehiago hartu zuten. estatuak posizio bat har zezan lan arautegien abstentziotik, interbentzionismoa pasa zezan, giza erreformismoa aurrera eraman zezan... horrela liberalismo berri bat sortu zen, erreformista. estatuak maila sozial ahulena babesteko erantzukizuna zeukan, estatuak betebeharrak sozialak zituela. horretarako, eskaera minimoen aldarrikapenak egingo dute: hezkuntza eta osasunaren bermea, lan kontratuen kontrola, eta langileen defentsarako elkarten babesak (sindikatuak, kooperatibak, mutualismoa...)

Pablo Iglesias, Espainiako Alderdi Sozialistaren sortzaileak –PSOE- (1879), eta erreformismo sozialaren bultzatzailea izan zen eta ardura handienetako bat haurren lan esplotazioa “gai sozialaren” Gaia zen.

A)ESTATU SOZIALAREN JATORRIA

xix. mendeko bigarren erditik aurrera eztabaida politikoaren garapena, Europa osoan hedatu zen gutxinaka, eta erritmo desberdinetara herrialdeen arabera, baiezkoa indarra irabaziko du estatuaren parte hartze handiagoa “gai sozialean” izateko (hezkuntza, osasuna, politika sozialak) prozesu luze hau hainbat faktorez lagunduta egon zen, xix. mendean zehar:

- a1) alderdi politiko marxistak/sozialdemokratak
- a2) katolikoek ekintza sozialak
- a3) sindikalismo berria

A1) Alderdi Politiko Marxistak/Sozialdemokratak:

XIX. Mendearen erditik, XX. mendearen hasiera arte, marxismoaren ideiak jarraitzen duten alderdi politikoak sortu ziren Europa osoan zehar: ALDARRIKAPENAK egin ziren: Sufragio unibertsalaren aldeko borrokan (gizonezkoa, hasieran, osoa, geroago) eta Estatuaren inplikazioa lortzeko, lan harremanen kudeaketan. (LEGEGINTZA SOZIALA.)

2. internazionalaren sorrera (1889) : Europa osoko alderdi politiko sozialistak elkartu zituen (anarkismoarekin banaketa, eta burgesiaren aldeko eta elizaren aldeko alderdietatik aldentzea zuten helburuetako bat (“kapitalaren lagunak, proletalgoaren etsaiak”) . horretarako aldarrikapenak zehaztu eta elkartu zituzten: 8 orduko lanordua, eta igandea “atsedena hartzeko eguna “ta maiatzaren 1a, lanaren egun internazionalaren instituzionalizatzea (langileen eskubideak defendatzeko eta aldarrikatzeko eguna .festa eta borroka eguna aldarrikapenen antolatzea, erreforma sozialaren prozesua bultzatu zuten erreforma sozialen komisio nazionalen sorrerarekin hainbat herrialdetan.

a2) katolikoek ekintza sozialak

industrializazioaren hasieratik, eta xix. mendaren bukaera arte mundu industrial eta elizaren arteko aldentzea gertatu zen erlijioaren kontra sentimenduaren sormena hasi zelako proletalgoan eta alderdi sozialistetan , eta eliza eta langileen arteko gero eta haustura handiagoa bilakatzen ari zen.

Europako elizaren erreakzioa: doktrina sozial baten sormenaren beharra izan zen, berriz langileekin konektatzeko eta mundu industrialaren giza beharrekin konektatzeko. lehenengo urratsak: alemaniako katolizismoa antiklerikalismoaren igoerarekin larrituta zeudenez zentrum alderdi politikoaren sormena izan zen. estatuen legegintza sozialaren beharra aldarrikatuko zuten, “giza gaixotasunak sendatzeko” .“elizaren doktrina sozialaren” eratze prozesua xix. bigarren zati osoan zehar luzatu zen, eta bere urrats internazional garrantzitsuen “rerum novarum enziklika” izan zen, leon xiii aita santuak eginda, 1891. urtean. rerum novarum-arekin elizaren inplikazioa “gai sozialean” lortu zen eta internazionalki ofiziala egin zen lana eta kapitalaren arteko gatazkan, posizionatu zirenean.

rerum novarum dokumentuak: industrializazioaren ondorioz gertatutako aldaketak aztertzen zituen, prozesuaren ondorio negatiboak azpimarratuz gremioen elkartasunaren desagertzearekin, tradizio eta oinarri erlijiosoaren ahaztearekin, proletalgoaren esplotazio egoerarekin eta burgesiaren interesen menpekoekin. hau guztia zela eta, honako aldarrikapenak egiten zituen:

- elkartzeko/ sindikatuzko langileen eskubidea
- estatuen ardura, ezbidetzeko sozialak

rerum novarum enziklikaren funtsezko ideiak

- langileen lan indarra ez da merkantzia bat bezala tratatu behar. • langileei haien elkarteak antolatzeko eskubidea ematea (lan elkartasunaren eskubidea). estatuei esaten zaie elkartasuna gizakien naturan dagoela, eta veraz langileen elkartasun profesionala langile guztien eskubide bat izan behar dela.
- igandeko atsedena
- haurren lanaren debekatzea.
- emakume langilearen babesa

rerum novarum enziklikaren ondorioak

- Langileen artean ez zuen arrakasta handia izan.
- Burges katolikoak eta Elizaren arlo kontserbadoreak errefusatu zuten baita ere

BAINA

- katolikoek ekintza sozialen hedapena indartu zuen Europa osoan:
 - Langileen Sindikatu Katolikoek sormenen bidez.
 - Elkarte eta zentru katolikoek fundazioen bidez.
 - Mutuak eta aurrezki kutxa katoliko sozialen bidez.

a3) sindikalismo berria.

xix. mendearen bukaeran: sindikalismo berria eta masiboa sortu zen, langileen ikuspen handioagotik sortuta eta zenbait eskubiden lorpenagatik sortuta (elkarrekin eta sufragioa) . honi esker jarduera gehiago egi zituzten eta aldarrikapen ahalmen gehiago zuten: botere publikoari esker (lege sozialak) ; propaganda eta jarduera politiko masibo baten hedapena (mitinak, langileen mobilizazioak, etabar.)

SINDIKALISMO BERRIAREN LAN KONTESTUA:

1) Industriaren hedapen handia Europako gertatu zenez soldatapeko langileen kopuruaren gorakada izan zen

2) "soldatapeko" prozesua,

3) gero eta auto-identifikazio kolektibo handiagoa zegoen.

SINDIKALISMO BERRIAREN EZAUGARRIAK:

1) "lanbide sindikalismo" batetik, sindikalismo "orokor/industrial" batera pasatu zen, aldarrikapen batasunarekin lanbideen arteko lehiak saihestu ziren.

2) sindikalismo elitista batetik, sindikalismo inklusiboago batera pasatu zen, masiboa:

a) kualifikaziorik gabeko langileak, barne

b) emakumeak, barne, hau da, sindikalismo mistoa, emakumezkoen sindikalismoa.

3) "sindikatu nazionalen" hedapena (sindikatu berrien sormena, eta lehengo sindikatu lokalen koordinazio nazionala) eta horrela koordinazio ahalmen gehiago zuten eta aldarrikapenen indar gehiago.

4) sindikalismoaren ierarkizazio gehiago: sindikalismo industrialaren

protagonismo zentrala beste sektore batzuen ahulezian zegoen

B) ESTATU SOZIALEN GARAPENA, ESTATU SOZIAL MOTAK

Estatu Sozialen garapena gutxinaka joan zen Aurrera, eta Estatu Sozialen tipologiak desberdinak izan ziren, garatu ziren kontestu nazional eta politikoen arabera:

ESTATU SOZIALAREN GARAPENAREN FASE GARRANTZITSUENAK:

B1) ALEMANIA, XIX. MENDEA, 80. HAMARKADA (Otto Von Bismarck) Kontestua:

Bismarck-en gobernu kontserbadore eta autoritarioak bere indarra areagotu nahi zuen, eta proletalgoaren eta sozialismoaren oposizioa ahuldu nahi zuen, HORRETARAKO Legezkaritza errepresibo bat garatu zuen eta Erreforma sozialen prozesu erraldoi bat aurrera eraman zuen, proletalgoan aldarrikapenak egiteko motibazioak murrizteko:

- 1883: GAIXOTASUNAKO DERRIGORREZKO
- 1884: lan istripuen derrigorrezko
- 1889: erretiroko aseguru: derrigorrezko kutxa bat sortu zen non bertan langileen, ugazaben eta Estatuaren ekarpenak zeuden pentsio batekin erretiratzeko eskubidea 70 urtetara ailegatzerakoan lortuko zutena.
- 1891: Estatuaren legeak: lanaldiaren gehieneko iraupena ezarri, emakumeen eta haurren lana murriztu, igandeko atsedena eta gaueko lana kudeatu.
- 1895: Soldaten erabera antolatutako zerga sistema bat bat sortu zen zergen bilketa handiagoa izateko

B2) Roosevelt, eta New Deal-a

Franklin D. Roosevelt Estatu Batuetako presidentea izan zen, 1933tik y 1945ra. New Deal-a Keynes-en ideietan oinarritutako politika ekonomiko eta soziala izan zen, Estatu Batuetan ezarri zena, 1933tik 1937ra. Helburuak: Oinarri ekonomiko berri bat sortzea 1929ko krisiak sortutako hondamendi ekonomiko eta soziala ta gero eta Kapitalismo liberalaren "esku ikusezina" arriskutsua zenez, kontrolik gabekoa, Estatuaren "esku ikusgaia" beharrezkoa sortzea, oreka ekonomiko eta sozial bat zihurtatzeko.

NEW DEAL-AREN HELBURU EKONOMIKOAK:

-Wall Street-eko poltsaren indarra berpiztu, eta aldi berean finantzen sektorearen ahalmen espekulatiboa murriztu.

-Ekonomia bultzatu (kontsumoa bultzatu)

- Moneta gehiago sortu eta kaleratu zen, urre patroia kontutan hartu gabe estatuak, 3000 milioi dolar berri sortu zuen eta veraz masa monetarioaren igoera izan zen.
- "Debaluazio lehiakorra": dolarren balioa erdira jeitsi zen.
- Keynes-ek gastu publikoa eta Estatuaren defizita defendatzen zituen, ekonomia pribatuaren krisiaren efektuak pairatzeko New Deal-a gastu publikoa 2'8z biderkatu zuen

NEW DEAL-AREN HELBURU SOZIALAK:

- a) Enpleguaren berraktibatzea bultzatu/langabeziaren kontra
- b) Langile industrial (gizonezkoen) egoera hobetu (legedi soziala)
- c) Derrigorrezko aseguru sistema publiko bat sortu.

2) "GAI SOZIALA", ESPAINIA GARAIKIDEAN

ESTATU SOZIALAREN JATORRRIA: ERREFORMA SOZIALEN KOMISIOA

XIX. mendearen bigarren partean, aldaketa ekonomiko eta sozialak gertatu ziren espainian

industrializazio prozesuaren garapenarekin gune eta sektore asko garatu ziren. estatuak arazo hauetan ez du parte hartzen eta langileen sektorean heriotza tasa altuak zeuden. Estatuak hainbat ikerketa egitea agindu zuen, Espainiako proletalgoaren egoera ebaluatzeko. Egoera honetan, 2883an Erreforma Sozialen komisioa sortu zen eta soizlaistak talde honetatik kanpo zeuden.

ERREFORMA SOZIALEN KOMISIOA (1883)

Espainia mailan Gai Sozialean Estatuaren lehenengo urratsa:

- Baieztatu zen Estatuak kapitala eta lanaren arteko harremanak epaitu behar zituela politikarien artean negoziatzen proiektu desberdinak. Gainera, proletalgora aldarrikapen hauetan elementu garrantzitsu bat izaten hasi zen eta gutxinaka eskubide politiko berriak eta eszenario berriak lortzen joan ziren. Sagastaren gobernu progresistak lege berriak egin zituen: adibidez imprimatze askatasuna (1883) edo elkartzeko askatasuna (1887) Greba garrantzitsuak, sozialismoaren eta anarkismoaren garapenarekin bat zioazten, Politikariek interbenzisionismoa gero eta beharrezkoa zela pentsatzen hasi ziren: ez bakarrik langileen bizi kalitatea hobetzeko, baita ere – orden soziala mantentzen laguntzeko. ERREFORMA SOZIALEN KOMISIOA ETA ESTAU SOZIALAREN EZTABAIDAK:
- Anarkistek ez zuten parte hartu partiden txandakako sistemaren aurka zeudelako eta sistema politikoaren berrikuntza total bat eskatzen zutelako.
- Sozialistek iritzi banaketa zuten, sektore batzuk komisioen lanetatik mesfidantza zuten eta besteek programatikoagoak ziren eta komisioan parte hartu zuten.
- Burgesia eta politikari kontserbadoareak estatuaren interbenzisionismo eza defendatzen zuten, argudio erlijiosoetan oinarrituz.
- Burgesia eta politikari progresistak liberalismoaren eta sozialismoaren kontrako erreakzioa zuten.

Ikuspuntu progresistak, gero eta indar handiagoa lortu zuen XIX. Mendearen bukaeran zehar eta honen fruituak XX. Mendean ailegatu ziren prozesu sozial eta politikoko jarduerak garrantzistak bultzatuta.

FRANKISMOA, ETA BERE "POLITIKA SOZIALEN KUDEAKETA (2. MUNDU GERRA ARTE)

- 2. Errepublikan (1931-1936) Estatu Sozialaren garapen oso handia gertatu zen Espainian. Sortu ziren aseguru sozial berriak Prebisioren Instituto Nazionalaren bidez abiatu ziren. Gerra Zibila eta gero, frankismoak "politika sozial berezi bat" bultzatu zuen.

EZAUGARRIAK:

- 1) Mussoliniren politika sozialen oinarria jarraitu zuen:
- 2) Prebisioren Instituto Nazionalak, ordura arte instituzio apolitikoa izandakoa, Falangen kontrolpean jarri zen
- 3) Frankismo <urretik Gai SOzilaean gertatutako aurrekuntza batzuk desegin zituen eta frankismoa baino lehen zeuden seguru sozial batzuk birmoldatu eta berrizentatu zituen frankismoaren justizia sozial giza aurkezteko.
- 4) Seguru berriak abian jarri zituen.